

Patxi 2.0

Juanjo, zure azken joaldian hau idatzi duzu: “Beste batzuek uste dute Patxi López dela euskal politikarien arteko gizonik desiragarriena”. Eta galdetzen dizut, eskua bihotzean dudala: nortzuk dira “beste batzuk” horiek? Existitzen al dira? Edo baliabide erretoriko gisa asmatu dituzu? Bai, ezta? Egia da euskal politikarien artean maila ez dela oso altua, baina... Patxi López desiragarriena? Nik ere Zenarruzabeitia nahiago, Patxi eta lehendakariordearen artean aukeratu behar badut. Atera kontuak.

Baina ez dadila dena izan Patxi López larrutzea. Baditu txalotzeko moduko gauzak: bere 2.0 ahalegina, esaterako. Patxi Lópezek bloga dauka (www.patxilopez.com), kanal propioa youtuben, flickr kontua bere argazkiak zintzilikatzeko. Twitter erabiltzailea ere bada eta haren bitartez jakin dezakegu non dagoen momentu bakoitzean (aireportuan, edo hileko hirugarren ostiraletako afarian). Baina ez hori bakarrik: lastfm web-gunearen bitartez gurekin konpartitzen du entzuten ari den musika (momentu honetan PJ Harveyren *To Talk to You*), eta Facebook zein Tuenti sareetan endredatuta dago. Facebook erabiltzaile amorratua naizen aldetik, lagun gisa gehitu dut Patxi, eta lerrook idazten ari natzaizuen honetan, oraindik ez dakit Patxik lagun moduan onartuko nauen ala ez. Urdu-ri nago.

* * *

Hala ere, susmagarri egiten zait Politika 2.0 delakoa. Eta Patxi ekarri dudanez hona, jarrai dezadan Patxiren ereduarekin. Suposatzen da 2.0 asmakizunaren gakoa parte-hartzea, elkarriketa eta elkarlanean dagoela. Baina benetan beharrezkoa da, 2.0 aitzakiapean, lehendakariaren inguruan hainbeste gauza jakitea? Dantza talde batean ibili zela? Begonia dela bere bizitzako pasioa (sic)?



INIGO AZKONA

Katixa Agirre

Apalategi

Olasagarre

Eta zergatik erakutsi behar dizkigu urriko hirugarren ostiraletako afarian ateratako argazkiak?

Honek guztiak gehiegi gogorarazten du iparramerikarrak politika egiteko duten manera. Vietnamen zeude-nean marihuana erre zutela aitortzea, beren seme-alabak erakusleho guztietan jartzea... *The personal is political* baina beste moduan ulertuta.

Hemen (eta *hemen* anbiguo horrekin Europan esan nahi dut) matraka horietaz libreago bizi ginen, Sarkozy agertu zen arte. Eta orain Politika 2.0 hori dator, bakoitzaren nahiera erabilia, ostiraletako afarietako argazkiekin eta guzti. Horreur!

* * *

Ez da politikari estatubatuarren gauza. Zerbait orokorragoa da. Idazleak, adibidez, antzera dabilta. Idazle iparramerikarren liburu-azaletan beti ematen dira bizitza pertsonalari buruzko aztarnak: ezkondata dauden, umerik baduten. Richard Bausch, adibidez, Virginian bizi da, Karen emaztearekin eta beren bost seme-alabekin. John Updike Martha bere bigarren emaztearekin bizi da. Joyce Carol Oates 45 urtez egon da ezkondata gizon berarekin (aurten alargundu da gaixoa). Hiru zertzelada pertsonal hauek eskura ditudan hiru liburutik hartu berri ditut, ahalegin handirik gabe. Ohitura hori daukate amerikarrek. Familia meritua da bertan. Gure literaturan (eta *gure* anbiguoarekin, *euskal* esan nahi dut), egilearen beste obrez gain ezer gutxi aurkitu dezakegu liburu-ruetako azal-hegaletan. Urlia kazetaritzan lizentziatua dela eta sandia institutu batean ingeles irakaslea. Oso gauza interesgarriak beti. Negatik, obren zerrendarekin nahikoa litzateke. Baina amu gisa idazten omen dira lerro biografikoak, komertzialagoa omen da. Zuek ere komertziala ikusten duzue, Ur, Juanjo? ■



Hemen matraka horietaz libreago bizi ginen,
Sarkozy agertu zen arte. Orain Politika 2.0 hori
dator, bakoitzaren nahiera erabilia, ostiraletako
afarietako argazkiekin eta guzti. Horreur!

